

# **GERNIKAKO UDALA**

 **gugaz-te!**

**Gernika-Lumoko gazteak  
euskararen erabileran aktibatzekeo egitasmoa**

## 1. SARRERA

Ahize-AEK-k proposamen hau garatu du **Gernika-Lumoko Udalak** egindako eskaerari erantzunez; udalak herrian euskara normalizatu dadin garatu nahi duen egitasmoaren baitan, Gernika-Lumoko gazteak euskararen erabileran aktiba daitezen neurri eraginkorrak hartu eta betetzen laguntzeko.

Ahize-AEK-k, orain arteko lana eta metatutako esperientziaz, xede horri erantzuteko garatuko duen egitasmoa, honako balio hauetan oinarrituko du:

- Arloko eragileen arteko elkarlana bultzatuko du.
- Gazteengan euskararen erabilerarekiko motibazioa eta sentsibilizazioa areagotuko ditu.
- Malgua: pertsona eta taldeen egoera, behar eta ezaugarrietara egokituko da.
- Adostua eta pertsona guztiekiko begirunean oinarrituko da.
- Komunikazio gardena interesa duten guztiekin.
- Parte-hartze kualitatiboa: euskal hiztunek ez ezik, nork bere hizkuntzatik eta ezagutzatik hartuko du parte.
- Lana metodikoa eta eraginkorra izango da. Neurtu eta ebaluatuko da.

## 2. HELBURUA

### HELBURU OROKORRA

**Gernika-Lumoko gazteak euskararen erabileran aktibatu eta gazte-batzordea sortzeko baldintzak jarri.**

### HELBURU ZEHATZAK

- Egitasmoa antolatu eta koordinazio-guneak dinamizatu.
- eusLiderrak tailerra eman Gernika BHIko (Gernika) eta Barrutialde Institutuko (Arratzu) 3. DBHn (guztira 110 ikasle).
- Ikasle eusLiderrarekin gazte-batzordea eratzeko dinamizazioa gidatu.
- Gazte-batzordea eratu.

- Egitasmoaren komunikazioa egin: sare sozialak kudeatu eta elikatu.
- Egitasmoaren epealdiaren amaierako balorazioak egin.

### 3. IRISMENA

Lankidetzaren iraupena: 2017ko irailaren 4tik 2018ko ekainaren 30era. Proiektuari astean, batz bestea, 5 orduko dedikazioa eskainiko diete Ahize-AEK-ko teknikariek.

### 4. ZERBITZUAREN GARAPENA

Elkarlan hori gauzatzeko, Ahize-AEK hizkuntza-aholkularitzak zerbitzua horrela garatuko du:

#### ANTOLAKETA ETA KOORDINAZIOA

Oro har, egitasmoaren ibilbidea eta oinarriak planifikatu eta ebaluatuko ditugu. Era berean, koordinazio-guneak (jarraipen batzordeak, batzorde teknikoak, eragileen batzordeak...) dinamizatuko ditugu: informazioa trukatzeko, hausnartzeko, erabakiak hartu eta alderatzeko, ekintzak planifikatu eta bideratzeko, baita planaren jarraipena egiteko eta koordinatzeko ere.

#### KOMUNIKAZIOA

Gernikako Udalarekiko, ikastetxeekiko eta beste eragileekiko komunikazioa etengabea izango da, alde batetik, onuradunak eta eragindakoak sentiberatzeko, eta bestetik, sustapen eta eragite lana babesteko. Era berean, antolatzen diren ekintzen berri emango dugu sare sozial, eskualdeko komunikabide eta bestelako euskarrien bidez. Ahize-AEK-ko teknikariak izango du honen ardura.

#### EUSLIDERRAK

Ahize-AEK-k eusLiderrak, hizkuntza portaera berriak sortzeko tailerra, emango du Gernika BHI institutuko eta Barrutialde institutuko 3. DBHn.

**eusLiderrak** egitasmoan 3.DBHko ikasleak sentiberatu, aktibatu, hizkuntzen garrantziaz jabetu eta haien arteko euskararen erabilera informala sustatuko dugu.

Hiru fasetan egingo dugu:

**1. fasea:** erakundearen atxikimendua eta parte hartzaileen jakin-mina asetzeko **kanpaina** egiten da.

## 2. fasea: 3 saio (60'):

1. saioa: **Informazio** esanguratsua ematen zaie parte hartzaileei, portaeran aldaketa dakartzaten faktoreak lantzeko, hau da, aldatzeko motibazio landu eta beharra ikustarazteko.
2. saioa: **Aldaketa sustatzen** da, eta horretarako ereduak eta baliabideak eskaintzen zaizkie. Aldaketa egingarria dela eta **trabak gainditu daitezkeela** ikustarazten zaie. Ingurukoengan eragin eta aldaketa oztopatu dezaketen ekintzetan eragiteko gaitasuna lantzen da. Saioa ekintza batekin lotzen da. Ekintza erregulatzailea. Ekintza bereizgarria. Fokalizatuko duena eta pro-aktiboa.
3. saioa: Lortutako **aldaketak indartzen** dira. Egindakoaren **feedbacka** eman. Eskareren emaitzak ikusi. Prozesua nola bizi izan duten aztertu: sentrazioak eta pertzepzioak jaso. Eragindakoen erantzuna aldaketaren aurrean. Norberaren erantzuna. Aldaketan sartzen ez dena kezkan jarraituko duela ikustarazi, eta, ondorioz, ekintza dela bidea, aldatzen saiatzea.

**3. fasea:** Aurreko fasean aktibatu diren **gazte-eusLiderrakin** ekintza soziala gauzatzeko aurrez aurreko beste 3 saio bideratuko ditugu. Hiru motako proiektuak izan daitezke: norberaren interesekoak, euskararen erabilera sustatzekoak edo erakundearen jardura hobetzeari lotutakoak. Kasu honetan, gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko ekintza bat antolatuzera gonbidatuko ditugu, Udala eta beste eragile batzuen laguntzaz.

## GAZTE-BATZORDEA

Ahize-AEK-k Gazte-batzordea sortzeko baldintzak sortuko ditu eusLiderrak tailerraren bitartez. Gazte-batzordean gazteak eurak izango dira protagonista eta euren parte-hartzea sustatuko da. Gazteen iritziak zuzenean jasotzeko elkargunea izango da. Gune honetan eusLiderrak tailerretan aktibatu diren gazteek parte hartuko dute. Gazteen kezkak eta aisialdirako proposamenak jasoko ditugu batzorde honetatik eta dagokien foroetara bideratuko ditugu. Gune honek Kulturartekotasuna sustatuko du, erdigunean euskara dagoelarik.

## 5. PROIEKTUAREN EGITURA

Eragile eta parte-hartzaileak:

- Arloko ordezkari politikoa.
- Euskara zerbitzuko teknikaria.
- Gazte informazio bulegoko teknikaria.
- Gazte elkarteak:
  - Ehunzango-URE elkartea
  - Egurre Gazte elkartea
  - Goizeko Izarra elkartea
  - Kosnoaga elkartea
- Ikastetxeak:
  - Gernikako institutua
  - Barrutialde institutua

Plan guztiek behar dute aurrera egiten lagunduko dien egitura, baina, era berean, errekurtsuak neurritz eta eraginkor erabiliko dituen.

Kudeaketarako oinarrizko guneak hauexek izango dira:

### JARRAIPEN BATZORDEA

#### PARTAIDEAK

Euskara zerbitzuko teknikaria  
Gazte informazio bulegoko teknikaria  
Ahize-AEK-ko teknikariak

#### FUNTZIOAK

Planaren jarraipen teknikoak egingo du.  
Hilez hileko ekintzen berri emango da.  
Gazte-batzordetik egindako proposamenak aurkeztuko dira, eta hala dagokionean, bideratu ere bai.  
Hilez hileko ekintzetan parte-hartzea jaso eta baloratuko da.

#### FUNTZIONAMENDUA

Urtean 4 aldiz elkartuko dira planaren jarraipena egiteko.

## KOORDINAZIO GUNEA

### PARTAIDEAK

Euskara zerbitzuko teknikaria  
Gazte informazio bulegoko teknikaria  
Ahize-AEK-ko teknikariaK  
Ikastetxeak:

- Gernikako institutua
- Barrutialde institutua

### FUNTZIOAK

Egitasmoa garatzeko orientabide nagusiak adostuko ditu.  
Jarraipenaren eta emaitzen berri emateko gunea izango da.

### FUNTZIONAMENDUA

Urtean 3 aldiz elkartuko dira planaren jarraipena egiteko.

## GAZTE-BATZORDEA

### PARTAIDEAK

Ahize-AEK-ko teknikaria  
Gazte informazio bulegoko teknikaria  
Gazte elkarteetako ordezkariak:

- Ehunzango-URE elkarte
- Egurre Gazte elkarte
- Goizeko Izarra elkarte
- Kosnoaga elkarte

eusLiderrak

### FUNTZIOAK

Batzordeak erabakiko ditu funtzioak

### FUNTZIONAMENDUA

Batzordeak berak erabakiko du funtzionamendua. 2018Ko ekainean eratuta geratuko da.

## 6. PROIEKTUAN EMAN BEHARREKO DOKUMENTUAK

- eusLiderrak tailerren balorazio eta emaitzen txostena.
- 2017ko gugaz-te! Egitasmoaren memoria txostena.

## 7. KRONOGRAMA

	2017			2018						
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
	iraila	urria	azaroa	abendua	urtarrila	otsaila	martxoa	apirila	maiata	ekaina
eusLiderrak aurkezteko bilerak ikastetxeetan	x									
eusLiderrak antolaketa bilerak	x									
eusLiderrak tailerraren 1. fasea		x								
eusLiderrak tailerraren 2. fasea		x	x							
eusLiderrak antolaketa bilerak				x						
eusLiderrak tailerraren 3. fasea					x	x				
eusLiderrak tailerra ixteko bilera						x				
Ekintza soziala prestatzeko batzordeak							x	x	x	
Ekintza soziala:GAZTE EGUNA									x	
Gazte-batzordea eratzeko 2 bilera									x	x
Koordinazio bilerak (3)						x		x		x
komunikazio ekintzak	x			x		x		x	x	x

## 8. AURREKONTUA

AURREKONTUA		BEZ-a
eusLiderrak tailerra	<b>4.361,50 €</b>	<b>Salbu</b>
Gazte-batzordea	<b>3.287,00 €</b>	<b>690,27 €</b>
Materiala	<b>667,35 €</b>	<b>140,14 €</b>
<b>OROTARA</b>	<b>9.146,27 €</b>	

Aurrekontu honek bere baitan hartzen ditu bidaia eta dietei lotutako gastu-kontzeptu guztiak.

### Ordainketa-epeak

Egin beharreko ordainketak adostutako epeetan egingo dira:

Lehen ordainketa, aurrekontuaren %50, 2017ko irailen  
Bigarren ordainketa, aurrekontuaren %50, 2018ko ekainean

### Ordainketak fakturak jasotzean egingo dira, bertan zehaztutako kontu korrante zenbakian.

Kontratua hasi eta gero, Euskaraz Kooperatiba Elkarteak lanetakoren bat egiten ez badu, aurrekontutik kenduko da; berriz, lana ez egitearen erantzukizuna Euskaraz Kooperatibarena ez bada, gainontzekoak bezala ordainduko da.

Bigarren kasu hori emango balitz, ordezeko lanak adosten saiatuko ginateke.

### Lankidetzaren proposamenaren balio-epea

Elkarlanerako proposamen honek dakartzan baldintza ekonomikoek 20 eguneko balio-epea dute, Gernikako Udalari aurkeztutako egunetik aurrera.

### Onartzeko modua

Txosten honen bi kopia egin, jarraian datozen datuak bete, sinatu eta Gernikako Udalaren zigilua jarri ondoren, Ahize-AEK hizkuntza aholkularitzari helarazi. Jasotakoan onartutzat emango dugu proposamena.





	<b>GERNIKAKO UDALA</b>	<b>EUSKARAZ KOOPERATIBA ELKARTEA</b>
Izena:		Euskaraz Kooperatiba Elkartea
Helbidea:		Txakur kalea 1, 5. 48005 Bilbo
IFK:		F-95222816

Gernikan, 2017ko martxoaren 21ean

**Gernikako Udala**

**Euskaraz Kooperatiba Elkartea**

OHARRA:

Txosten honetan jasotako **proposamena irekia** da eta, ondorioz, zabalik dago edozein ekarpenetarako **Gernikako Udalak** egoki jotzen dituen pertsonen aurrean zein gunetan **aurkeztu, aztertu eta behar diren egokitzapenak entzun eta adosteko prest** dago, beraz, Ahize-AEK hizkuntza aholkularitza.